

Bizitzaren zaintzak erdigunean.

Zaintza askotariko dimentsioek osatzen dute (ekintzak, ardurak, emozioek,...) eta, beraz, ez da erraza zaintza zer den definitzea. Tradizionalki emakumeek hartu dute beraien gain eta ez du aitortzarik izan. Bizitzaren zaintzak erdigunean jartzeak egungo jendarte antolaketa eta genero harremanak kritikoki berrikusteko aukera ematen du eta, baita interdependen-
tzian oinarritutako jendarte justu eta parekide baterantz aurrerapausoak emateko propo-
samenak egitekoa ere.

#EKONOMIA FEMINISTA



Oinarrizko
Prestakuntza

MATRIKULA

Ikastaroaren data
AZAROAREN 3TIK ABENDUAREN 9RA

Matrikulazioaren data
HASIERA: IRAILAK 22
BUKAERA: URRIAK 26

25 orduko prestakuntza egiaztatua

Ikastaroaren hizkuntza EUSKERA

IRAKASLEA



**Matxalen Legarreta Iza (koordinatzailea);
Marina Sagatzizabal Emilio-Yus; Maider
Barañano Uribarri; Alaitz Uriarte
Goikoetxea.**

Soziologia eta Gizarte Langintza Saila
(UPV/EHU).



Elena Martínez Tola.
Ekonomia Aplikatua Saila
(UPV/EHU).

Eman izena hemen

HELBURU OROKORRAK

- Zaintza kontzeptualizatzeko eta definitzeko gakoak eskaintzea, zaintza osatzen duten dimentsioetan arreta jarritz.
- Zaintzaren gizarte antolaketa eta zaintzaren krisia azaltzea, genero ezberdintasunetan duten eragina identifikatuz.
- Zaintzaren begiradatik eguneroko denboren eta espazioen genero erabilera eta egitu-
raketa kritikoki aztertzea.
- Bizitzaren zaintzak erdigunean jarriko dituen jendarte justu eta parekide baterantz aurre-
ra egiten laguntzen duten esperientzia ere-
dugarriak azaltzea.

UNITATE DIDAKTIKOAK

1. MODULUA

Zaintzak eta bizitzaren sostengarritasuna interdependentziaren oinarri moduan.

2. MODULUA

Nola banatzen dira zaintzak? Zaintzaren jendarte antolaketa.

3. MODULUA

Eguneroko denboren eta espazioen berrikusketa zaintza erdigunean jarritz.

4. MODULUA

Jendarte zaintzaile baterantz aurrerapausoak: eraldaketarako proposamenak.